Irakaskuntza-Artezkaritzaren 1983.eko Martxoaren 29ko ERABAKIA, araupekoez besteko irakaskuntzei buruzko 707/1976 Dekretoaren 35. Atalak dioena betetakotzat hartuz. 1517

Irakaskuntza-Artezkaritzaren 1983.eko Martxoaren 29ko ERABAKIA, araupekoez besteko irakaskuntzei buruzko 707/1976 Dekretoaren 35. Atalak dioena betetakotzat hartuz. 1518

Hezkuntza-Sailaren 1983.eko Martxoaren 28ko AGINDUA, Gipuzkoako Lurraldeko Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko Norbanako-jabetzapeko ikastetxe baten aldakuntza eta BEHIN-BETIKO sailkapena ontzat emanaz. 1519

Hezkuntza-Sailaren 1983.eko Martxoaren 29ko AGINDUA, Arabako Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko Norbanako-jabetzapeko Ikastetxe baten aldakuntza eta BEHIN-BETIKO sailkapena ontzat emanaz. 1520

RESOLUCION de 29 de Marzo de 1983, de la Dirección de Enseñanzas, por la que se tiene por cumplido el artículo 35 del Decreto 707/1976 sobre enseñanzas no regladas. 1517

RESOLUCION de 29 de Marzo de 1983, de la Dirección de Enseñanzas, por la que se tiene por cumplido el artículo 35 del Decreto 707/1976 sobre enseñanzas no regladas. 1518

ORDEN de 28 de Marzo de 1983, del Departamento de Educación, por la que se aprueba la transformación y clasificación definitiva de un Centro privado de Educación General Básica en el Territorio de Guipúzcoa. 1519

ORDEN de 29 de Marzo de 1983, del Departamento de Educación, por la que se aprueba la transformación y clasificación definitiva de un Centro privado de Educación General Básica de Alava. 1520

# Iragarpenak
# Anuncios

GETXOKO UDALA

Udalbatzarrak 1983.eko Apirilaren 15ean hartutako ERABAKIA, aipatzen den Hirigintzaketa-Egitasmoari lehen onarpena emanez eta herri-argipideketara ateraz. 1522

AYUNTAMIENTO DE GETXO

ACUERDO del Pleno de la Corporación, de 15 de Abril de 1983, por el que se aprueba inicialmente el Proyecto Urbanístico que se cita y se somete a información pública. 1522

# Euskadi Osorako Erabakiak
# Disposiciones Generales del País Vasco

## LEHENDAKARITZA-SAILA

831

Maiatzaren 2ko 86/1983 DEKRETOA, "GERNIKAKO ARBOLAREN GURUTZEA" delako bikaintasun-ezaugarria sortaraziz.

Lehendakaritza-Sailburuaren saloz eta Jaurlaritzak 1983.eko Maiatzaren 2an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, honako hau

ERABAKITZEN DUT:

*1. Atala.*—"Gernikako Arbolaren Gurutzea" delako bikaintasun-ezaugarria sortarazten da, Euskadiren nortasuna babesteko eta horretaz birjabetzeko, eta orohar, herri eta kultura alorrean egindako zerbitzu garrantzitsuegatik nabarmendu direnak saritzeko xedez.

Bikaintasun-ezaugarri hau edozein herritarri eman ahal izango zaio, politika aldetik euskalduna izan ala ez.

*2. Atala.*—Gurutzea pikailura gorriduna izango da, zilarrez ingurutua. Gernikako Arbola izango du bere erdigunean berdez pikailatua, Bizkaiko Jaurerriko harmarrian agertzen den-deneantxe; eta zilarrez BETI ZUTIK izenpurua daramala. Atzekaldean izenpuru berdina, baina Gernikako Zuhaitzaren ordez Euskal Herriko Autonomia-Elkartearen harmarria daramala.

Euskaldun herritarrei eman dakienean, hiru koleretakoa izango da xingola, ikurriñak daramatzanak hain zuzen, eta bestelakoetan, berdea.

## DEPARTAMENTO DE LA PRESIDENCIA

831

DECRETO 86/1983, de 2 de Mayo, por el que se crea la distinción de la "Cruz del Arbol de Gernika".

A propuesta del Consejero de la Presidencia y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su reunión del día 2 de Mayo de 1983,

DISPONGO:

*Artículo 1.º*—Se crea la distinción de la "Cruz del Arbol de Gernika" con objeto de premiar a aquellas personas que se hayan distinguido por sus relevantes servicios prestados a Euskadi en defensa de su identidad y restauración de su personalidad y, en general, en el campo cívico y cultural.

Esta distinción podrá otorgarse a cualesquiera ciudadanos, tengan o no la condición política de vascos.

*Artículo 2.º*—La Cruz será de esmalte rojo rebordeada en plata. Llevará en su centro el Arbol de Gernika tal y como figura en el escudo del Señorío de Vizcaya, esmaltado en color verde; y en plata la inscripción BETI ZUTIK. En el reverso la misma inscripción, con la diferencia de que en vez del Arbol de Gernika figura el escudo de la Comunidad Autónoma Vasca.

Cuando se otorgue a ciudadanos vascos la cinta será tricolor, con los colores de la ikurriña, y en otros casos, de color verde.

3. *Atala.*—Bikaintasun-ezaugarria Dekretoz emango da, Lehendakariaren edo Sailbururen baten saloz, Eusko Jaurlaritzak Osoko Bilkuran erabakia hartu ondoren.

4. *Atala.*—Dekreto hau egiteratzeko eta osabideratzeko behar daitezen erabaki guztiak emateko eskua ematen zaio Lehendakaritza-Sailburuari; Dekreto hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadin egunean bertan jarriko dela indarrean.

Gasteizen, mila bederatzirehun eta larogeita hirugarreneko Maiatzak bi.

Lehendakaria,
CARLOS GARAIKOETXEA URRIZA.

Lehendakaritza-Sailburua,
XABIER CAÑO MORENO.

*Artículo 3.º*—La concesión de la distinción se hará por Decreto, a propuesta del Lehendakari o de un Consejero, previo acuerdo del Pleno del Gobierno Vasco.

*Artículo 4.º*—Se faculta al Consejero de la Presidencia para dictar cuantas disposiciones sean necesarias para el desarrollo y aplicación del presente Decreto, que entrará en vigor el mismo día de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a dos de Mayo de mil novecientos ochenta y tres.

El Presidente,
CARLOS GARAIKOETXEA URRIZA.

El Consejero de la Presidencia,
JAVIER CAÑO MORENO.

# Bestelako Agintza eta Erabakiak
# Otras Disposiciones y Acuerdos

## HEZKUNTZA ETA KULTURA-SAILA

832

Hezkuntza-Sailaren 1983.eko Martxoaren 22ko AGINDUA, Gipuzkoako Tolosako "San José" izeneko Lehen eta Bigarren Mailako Lanbide-Hezkuntzako, lege-sendetsitako, Norbanako-jabetzapeko Ikastegiari, Bigarren mailako Arduralaritza-ikasketen berezitasuna emanez.

Andre Txit Argia:

Gipuzkoako Tolosako "San José" izeneko Lehen eta Bigarren mailako Lanbide-Hezkuntzako, lege-sendetsitako Norbanako-jabetzapeko Ikastegiko Artezkariak, Bigarren mailako Arduralaritza eta Merkataritza alorra, Arduralaritza berezitasunaz, zabalagotzeko egindako eskea ikusita; berezitasun hori arian-arian ezarkizun eta Ikaskaritzakoa ezabakizun;

Ikastegi hori, 1977.eko Abenduaren 26ko Aginduaren arauera gaurko mailan eta sailkaketan aitortu zela kontutan izanik, eta eskatzen dituen ikasketak emateko beharrezko baldintzak betetzen dituela, Sailaren Gipuzkoako Lurralde-Ordezkaritzak arauz emandako erizpenetan eta egindako saloetan argi eta garbi erasotzen denez,

Sail honek zera erabaki du: Baimena ematea, Gipuzkoako Tolosako "San José" izeneko Lehen eta Bigarren mailako Lanbide-Hezkuntzako, lege-sendetsitako Norbanako-jabetzapeko Ikastegiari, Bigarren Mailako Arduralaritza eta Merkataritza alorreko Arduralaritza-ikasketak emateko, 1982/1983 ikasturtetik hasita, Idazkaritza-berezitasunari dagozkion ikasketak arian-arian ezabatuko direla.

Jainkoak gorde zaitzala Andre Txit Argi hori.

Gasteiz, 1983.eko Martxoak 22.

Hezkuntza-Sailburua,
PEDRO MIGEL ETXENIKE LANDIRIBAR.

IRAKASKUNTZA-ARTEZKARI ANDRE TXIT ARGIA.

## DEPARTAMENTO DE EDUCACION Y CULTURA

832

ORDEN del Departamento de Educación, de 22 de Marzo de 1983, por la que se concede al Centro Privado de Formación Profesional de Primero y Segundo Grado, Homologado, "San José" de Tolosa (Guipúzcoa) la especialidad de Administrativo en Segundo Grado.

Ilma. Sra.:

Vista la petición formulada por la Directora del Centro privado de Formación Profesional de Primero y Segundo Grado, homologado, "San José" de Tolosa (Guipúzcoa), para que se le conceda la ampliación de enseñanzas correspondientes al Segundo Grado, Rama Administrativa y Comercial, especialidad Administrativa, que se irá implantando sucesivamente, a la vez que irán desapareciendo las enseñanzas de Secretariado;

Teniendo en cuenta que este Centro fue reconocido en el grado y clasificación actual al amparo de lo dispuesto en la Orden de 26 de Diciembre de 1977 y que reúne las condiciones precisas para impartir las nuevas enseñanzas que solicita, como queda reflejado en los informes y propuestas emitidos preceptivamente por la Delegación Territorial del Departamento en Guipúzcoa,

Este Departamento ha resuelto autorizar al Centro Privado de Formación Profesional de Primero y Segundo Grado, homologado, "San José" de Tolosa (Guipúzcoa), para que imparta las nuevas enseñanzas de Segundo Grado en la Rama Administrativa y Comercial, especialidad Administrativa, a partir del curso académico 1982-1983 y que sucesivamente se vayan clausurando las enseñanzas correspondientes a la especialidad de Secretariado.

Dios guarde a V. I.

Vitoria-Gasteiz, 22 de Marzo de 1983.

El Consejero de Educación,
PEDRO MIGUEL ETXENIKE LANDIRIBAR.

ILMA. SRA. DIRECTORA DE ENSEÑANZAS.